

Gazteen pertzepzioak neurtzeko galdetegiaren emaitzak

Debarrena, 2018ko abendua

DEBABARRENAN STEM
BOKAZIOAK LANTZEKO
PROIEKTUA



Debarreneko Garapen Ekonomikorako Elkartea
Sociedad para el Desarrollo Económico de Debarrena

Bizipenak eta Komunitatea

elhuyar
Zientzia



Laguntzaileak:



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

GALDETEGIA ERANTZUN DUTENEN PROFILA




548

gaztek erantzun dute
galdegegia



% 47

emakumeak



% 49

gizonezkoak

% 81,20

gurasoak jatorriz
EAEkoak

Eibartarra %49 eta
Elgoibartarra % 28



% 18,13

Eibar BHIko ikasleak
(ikasleen % 33,45k bete du)



% 20

La Salle Azitaingo ikasleak
(ikasleen % 92k bete du)



% 16

Elgoibar ikastolako
ikasleak (ikasleen %
88k bete du)



ALDATZE
Colegio Santa María
de la Providencia

% 17


Aldatzeko ikasleak
(ikasleen % 91k bete du)



GALDETEGIA ERANTZUN DUTENEN PROFILA

Guztira 548 gaztek erantzun dute galdetegia:

- erantzun dutenen % 47 neskak
- % 49 mutilak
- eta % 4 ez binario gisa identifikatu dira



Galdetegian ez-binario aukera ere txertatzea garrantzitsua iruditu zaigu, gazteentzako sentsibilizaziorako ariketa gisa. Erantzun dutenen %4ak baino ez du aukera hau hautatu eta erantzunen artean badira seriuski erantzun ez dutela agerian utzi duten batzuk. Horregatik, datuak jaso ditugun arren, ondorioak ateratzeko orduan tentuz ibili gara dokumentuan zehar.

GALDETEGIA ERANTZUN DUTENEN PROFILA

Erantzun duten gazte **gehienek EHko jatorria duten gurasoak** dituzte, (% 81, 20)

	Neskak		Mutilak		Ez binarioak		Guztira	
	Z	%	Z	%	Z	%	Z	%
Gurasoak Ehkoak	213	83,53	220	80,88	12	57,14	445	81,20
Gurasoak europako beste toki batetakoak	13	5,10	27	9,93	4	19,05	44	8,03
Gurasoak munduko beste toki batetakoak	29	11,37	25	9,19	5	23,81	59	10,77
GUZTIRA	255	100	272	100	21	100	548	100

GALDETEGIA ERANTZUN DUTENEN PROFILA



Erantzun-tasak oso ezberdinak izan dira ikastetxeen artean.
Honako lau ikastetxe hauetako ikasleak dira nagusi:

- **Aldatze** (DBH3eta DBH4ko ikasleen **% 90,48**). Nabarmentzekoa da, mutilen % 97,83k bete duela galdetegia.
- **La Salle Azitain (%91,53)** Kasu honetan, neska ia denek, % 98,04, bete dute.
- **IES Elgoibar (%64,18)** Nesken eta mutilen arteko erantzun-tasa ia 40 puntuko aldea dago. Mutil gehiagok erantzun dute (% 59) eta mutilen % 79,69k erantzun du.
- **Elgoibar ikastola (% 88,35)** Nesken %91.84k erantzun du.

	Neskak		Bete dutenen portzentaia	Mutilak		Bete dutenen portzentaia	Ez binarioak		Guztira		Bete dutenen portzentaia
	Z	%	%	Z	%	%	Z	%	Z	%	%
CO SAN PELAYO ERMUA	1	50,00	4,00	0	0,00	0,00	1	50,00	2	0,37	3,33
EIBAR BHI	48	48,48	32,00	46	46,46	31,51	5	5,05	99	18,13	33,45
ALDATZE	49	51,58	83,05	45	47,37	97,83	1	1,05	95	17,40	90,48
LA SALLE AZITAIN	50	46,30	98,04	58	53,70	86,57	0	0,00	108	19,78	91,53
SORALUCE B.H.I	15	48,39	55,56	16	51,61	41,03	0	0,00	31	5,68	46,97
IES ELGOIBAR	30	34,88	42,86	51	59,30	79,69	5	5,81	86	15,75	64,18
ELGOIBAR IKASTOLA	45	49,45	91,84	40	43,96	74,07	6	6,59	91	16,67	88,35
IES MENDATA DEBA	0	0,00	0,00	0	0,00	0,00	2	100,00	2	0,37	1,63
MUTRIKUKO INSTITUTUA	16	53,33	32,00	14	46,67	28,57	0	0,00	30	5,49	30,30
ED/EE	1	50,00		1	50,00		0	0,00	2	0,37	




GALDETEGIA ERANTZUN DUTENEN PROFILA




Erantzun duten gazte **gehienek 14 edo 15 urte dituzte.**

%49 eibartarrak dira; berriz, %28 elgoibartarrak.

Erantzunak sexua eta adinaren arabera



Erantzunak sexua eta kurtsoaren arabera



GALDETEGIAREN EMAITZAK





Genero-estereotipo tradizionalak gazteek gai ezberdinekiko duten interesean eragina dute la esan dezakegu:

- Oro har, **neskek interes handiagoa erakusten dute gai gehiagotan** (% 40tik gora hainbat gaietan).

Mutilen interesa askoz ere fokalizatuagoa dago: kirolean (% 78,68) eta zientzia eta teknologian (% 56,25) pilatzen da. Gainontzeko gaietan interesik eza edo txikia dutela adierazi dute.





GAI EZBERDINEKIKO INTERESAK



Neskei gehien interesatzen zaizkien gaien artean daude gai sozialak (% 51,37), kirolak (% 46,67), eta medikuntza eta osasuna (% 46,66).

Mutilen kasuan, berriz, kirolen inguruko interesa da nagusi (% 78,68), eta zientzia eta teknologiaren ingurukoa, bigarren (% 56,25).





Neskentzat interesgarriak diren gaiak askotarikoak dira. Honako hauek dira nesken artean interesik handiena piztu duten gaiak:

- ✓ **Gai sozialak**(gurasoak EH % 54; gurasoak EH kanpo % 40)
- ✓ **Hezkuntza**(gurasoak EH % 52; gurasoak EH kanpo % 45)
- ✓ **Kirolak**(gurasoak EH % 50; gurasoak EH kanpo % 31)
- ✓ **Famatuen gaiak** (gurasoak EH % 50; gurasoak EH kanpo % 31)
- ✓ **Zinema, artea eta kultura** (gurasoak EH % 48; gurasoak EH kanpo % 43)
- ✓ **Medikuntza eta osasuna** (gurasoak EH % 45; gurasoak EH kanpo % 57)
- ✓ **Elikadura eta kontsumoa** (gurasoak EH % 41; gurasoak EH kanpo % 43)
- ✓ **Gertakari paranormalak eta okultismoa**(gurasoak EH % 39; gurasoak EH kanpo %47)




Honako hauek dira mutilen artean interesik handiena piztu duten gaiak:

- ✓ **Kirolak** (gurasoak EH % 77; gurasoak EH kanpo % 85)
- ✓ **Zientzia eta teknologia** (gurasoak EH % 56; gurasoak EH kanpo % 58)
- ✓ **Ingeniaritza** (gurasoak EH % 49; gurasoak EH kanpo % 36)
- ✓ **Hezkuntza** (gurasoak EH % 38; gurasoak EH kanpo % 37)
- ✓ **Matematika** (gurasoak EH % 36; gurasoak EH kanpo % 49)

Honako hauek dira ez- binarioen artean interesik handiena piztu duten gaiak:

- ✓ **Elikadura eta kontsumoa**(gurasoak EH % 42; gurasoak EH kanpo % 22)
- ✓ **Famatuen gaiak**(gurasoak EH % 42; gurasoak EH kanpo % 33)
- ✓ **Gertakari paranormalak eta okultismoa**(gurasoak EH % 41; gurasoak EH kanpo % 33)
- ✓ **Kirolak** (gurasoak EH % 66; gurasoak EH kanpo % 44)

Gazteei hainbat **ikasgaiekiko duten interesa 0-10 eskala baten bidez baloratzeko** eskatu diegu.



- Gazteen **ikasgaiekiko interes-falta orokorra da nabarmena**. Oso ikasgai gutxik jaso dute 5etik gorako batezbesteko puntuazioa (berdez).
- Galdetegiaren erantzunetan ez da alderik agertu gurasoen jatorriaren arabera.

Gazteek ikasgaietan duten interesa baxuak bat egiten du munduko beste gazteen interes mailarekin. Esate baterako, Estatu Batuetako 275.000 gazte ingururi galdetuta, %81ak erantzun zuen ikasten dutena ez dela interesagarria.



Iturria: Yazzie-Mintz, E. (2010). *Charting the Path from Engagement to Achievement: A Report on the 2009 High School Survey of Student Engagemen*. Indiana University Center for Evaluation and Education Policy (CEEP)



IKASGAIEKIKO INTERESA



Neskek



Biologia

5,42



Matematika

4,97

Mutilek



Teknologia

6,60



Kimika

4,72



Informatika

6,48



Matematika

5,13

Ez-binarioiek



Teknologia

3,83



Informatika

3,82



Matematika

3,68




STEM PROFESIONALEN BIZIMODUA



Gazteei **STEM arloan diharduen pertsona baten bizimodua** 0-10 eskala baten bidez baloratzeko eskatuta:


- Mutilek, batez beste, 6,5 baloratu dute.
- Neskek, berriz, 5,90.





ZER IZAN NAHIKO ZENUKE NAGUSITAN?

Neskek, oro har, interes aniztasun handiagoa dute (22 lanbide). Hala ere badira bereziki nabarmendu beharreko bost lanbide:



- **Medikua edo erizaina** (48)
- **Enpresaburua edo zuzendaria** (35)
- **Irakaslea** (35)
- **Artista** (27)
- **Kirolaria** (21)

Nesken artean osasun- eta gizarte-zientziei lotutakoak nagusitu dira. Zientzialaria edo ikertzailea hautatu dute 14 neskek eta, Ingeniaria edo asmatzailea beste 13k.

ZER IZAN NAHIKO ZENUKE NAGUSITAN?

Aurreko orriko grafikoetan ikus daitekeenez, honako hauek dira kolektibo bakoitzak





ZER IZAN NAHIKO ZENUKE NAGUSITAN?

EAE matrikulatuak unibertsitatean

Matrikulatuen artean % 75 baino gehiago emakumeak diren graduak. EAE 2015/2016 ikasturtea

	(%)EMAKUMEAK
Hizkuntza modernoak eta kudeaketa	88,0
Haur Hezkuntza	87,6
Erizaintza	82,9
Itzulpengintza eta interpretazioa	81,6
Pedagogia	78,9
Giza elikadura eta dietetika	77,1
Odontologia	77,0
Gizarte-lana	76,5
Ingeles ikasketak	76,1
Hizkuntza modernoak	75,9
Psikologia	75,9
Turismoa	75,4

Iturria: EUSTAT Unibertsitate-estatistika

Matrikulatuen artean % 75 baino gehiago gizonak diren graduak. EAE 2015/2016 ikasturtea

	(%)GIZONAK
Elikagai produktu eta prozesuen berrikuntzako Ingeniaritza	92,6
Infomatikako ingeniaritza	90,6
Itsasketa	89,2
Ingeniaritza elektronikoa, industrial eta automatikoa	87,7
Ingeniaritza elektronikoa industrial eta automatikoa	86,0
Elektronika Industrial	85,9
Industria elektronikoko ingeniaritza	85,2
Telekomunikazio-sistemen ingeniaritza	85,0
Informazio-sistemen eta kudeaketaren ingeniaritza informatikoa	84,1
Infomatika Ingeniaritza	83,8
Ingeniaritza mekanikoa	83,5
Nautika eta Itsas Garraioa	83,3
Energiaren ingeniaritza	82,5
Ingeniaritza elektrikoa	81,2
Informazioaren teknologiaren ingeniaritza	78,7
Ingeniaritza elektronikoa	77,1
Elektroniko industrial eta automatikoko ingeniaritza	76,2
Jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak	76,0
Industria-prozesuetako ekoteknologian ingeniaritza	75,6
Telekomunikazio Teknologian Ingeniaritza	75,2

Iturria: EUSTAT Unibertsitate-estatistika



ESKUALDEKO INDUSTRIA HITZ BATEAN: ENPLEGUA



Ez dakit erantzunak kenduta (159), eskualdeko industriaren argazki hau egin dute gazteek:



- Enplegua (43)
- Kutsadura (28)
- Produkzioa (26)
- Ezezaguna (23)
- Aukera (21)
- Dirua (17)
- Interesik eza (17)
- Berritzailea (15)



ESKUALDEKO INDUSTRIA HITZ BATEAN: ASPERGURA



Ez dakit (9) erantzunak kenduta, hau da ez-binarioen artean nagusitu den erantzuna:

- Aspergura (2)



Galdera honetan jasotako datuek ez digute kolektibo honi buruzko ondoriorik emateko aukerarik ematen.



ESKUALDEKO INDUSTRIAN LAN EGITEA: ASPERGARRIA



Ez dakit (69) erantzunak kenduta, hauek dira **nesken artean nagusitu diren**

erantzunak:



- **Aspergarría** (21)
- **Ezer** (18)
- **Ilusiorik eza** (15)
- **Ilusioa** (13)
- **Makinak**(9)


Eskualdeko industrian lan egitea gauza **oso ezberdinekin lotzen dute neskek**. Nabarmendu beharrekoa da, **hiru hautatuenak aspergarría, ezer eta ilusiorik eza direla**. Laugarren hautatuena ordea **(13 neskek) ilusioa da**.



ESKUALDEKO INDUSTRIAN LAN EGITEA: ASPERGARRIA



Ez dakit (9) erantzunak kenduta, hau da **ez-binarioen artean nagusitu den erantzuna:**



- **Aspergarria** (4)
- **Positiboa** (3)

Galdera honetan jasotako **datuek ez digute kolektibo honi buruzko ondoriorik emateko aukerarik ematen**. Halere industria aspergarria iruditzen zitzaien eta bertan lan egitea ordea, aspergarria.



ESKUALDEKO INDUSTRIAKO LANPOSTUEN PERTZEPZIOA



Gazteen erantzunek erakutsi dute inguruko enpresetan lan egiteari buruz duten ezjakintasuna, eta ez dutela balioesten.

Adibidez, Espainian Everisek 2012an 4500 gazteri egindako galdetegiaren emaitzetan ikusi zen gazteek STEM arloetako lanbideak prestigioarekin, erakargarritasunarekin eta irtenbide profesional onekin lotzen zituztela.


Iturria: **Factores influyentes en la elección de estudios científicos, tecnológicos y matemáticos. Visión de los estudiantes de 3º y 4º de ESO y Bachillerato.** Everis



EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO ALDEAK INGURUKO INDUSTRIAN

Grafikoan ikusi dezakegunez **neska (%58,04) eta ez-binario (%61,90) gehienek emakume eta gizonen arteko aldea dagoela uste dute**. Mutilen artean, ordea gehienek (%39,34) ez dakitela erantzun dute.

Uste duzu aldea dagoela emakume eta gizonen artean zure inguruko industrian lan egiteko garaian?



Arrazoitzean, batzuek zein bestek **soldata-arrakala**rekin lotzen dute.




GAITASUNEN PERTZEPZIOA



Grafikoan ikusi dezakegunez oro har **gaitasun txikia dutela uste dute gazteek.**

- **Neskek** biologian eta matematikan gaitasun handiagoa dutela uste dute, baina ez dira nahiko handira heltzen.
- **Mutilek** informatikan eta teknologian gaitasun nahiko handia dutela uste dute.
- **Ez- binarioek** informatika eta matematiketan gaitasun handiagoa dutela uste dute, baina ez dira 1,50era iristen.


Zenbateko gaitasuna ikusten diozu zure buruari etorkizunean ikasgai hauek ikasten jarraitzeko?




Gaitasunaren **auto-pertzepzioan** zuzeneko eragina du, gazteek nerabezeroan zehar duten **autestimu-mailak**

- Neskek eta mutilek gaitasun-maila berdintsua hautematen dute.
- Halere, neskek ez dute argi lan zientifiko, tekniko edota industrialetan lan egin nahiko luketen.
- Mutilen % 40 baino gehiagok lan zientifiko, tekniko edota industrialetan lan egitea gustatuko litzaiekeela esaten du.

Gai ikusten duzu zure burua ikerketa zientifiko eta teknikoetan jarduteko?



Gustatuko litzaizuke jardute lan zientifiko, tekniko nahiz industrialetan etorkizunean?






ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN ARITZEN DIREN PERTSONEN EZAUGARRIAK

Zientzian eta teknologian jarduten duen pertsona bat deskribatzeko honako ezaugarri hauek aipatu dituzte:

- ✓ **Argia** (367)
- ✓ **Langilea** (256)
- ✓ **Jakintsua** (221)
- ✓ **Jakinguratsua** (162)

Sintonia handia dago nesken eta mutilen artean zientzian eta teknologian ari diren pertsonak deskribatzean.






ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN ARITZEN DIREN PERTSONEN EZAUGARRIAK



Neskek honako ezaugarri hauek aipatu dituzte zientzian eta teknologian jarduten duen pertsona bat deskribatzeko:

- ✓ Argia (168)
- ✓ Langilea (113)
- ✓ Jakintsua (111)
- ✓ Jakinguratsua (82)




Proporzionalki neskek mutilek baino garrantzi handiagoa ematen diote jakintsua eta jakinguratsua izateari.



ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN ARITZEN DIREN PERTSONEN EZAUGARRIAK

Mutilek honako ezaugarri hauek aipatu dituzte zientzian eta teknologian jarduten duen pertsona bat deskribatzeko:

- ✓ **Argia** (183)
- ✓ **Langilea** (135)
- ✓ **Jakintsua** (104)
- ✓ **Jakinguratsua** (75)




Proporzionalki mutilek neskek baino garrantzi handiagoa ematen diote argia eta langilea izateari.



ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN ARITZEN DIREN PERTSONEN EZAUGARRIAK



Zientzian eta teknologian lan egiten duten profesionalen inguruan dauden estereotipoek eragina dute gazteen ikasketen hautaketetan. Izan ere, hainbat ikerketek ondorioztatu dute ikertzailea aparteko talentodun ikuspegiak eraginda (*brainy*), gazteek alde batera uzten dituztela eremu horietako ikasketak, gai izango ez direlakoan.



Erreferentziak:

[Aspires: Young people's science and career aspirations, age 10 –14.](#) King's College London.




NOLAKOAK DIRA ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA?



Bukatzeko gazteek zientzia eta teknologiaz duten irudiaren inguruan galdetu diegu, RRIari lotutako galdera baten bidez.

Zenbateraino dira, zure ustez, zientzia eta teknologia honelakoak?



- ✓ **Nesken batez besteko puntuazioa mutilena baino pixka bat handiagoa** da 3 ezaugarriari dagokienez: irisgarriak, partaidetzazkoak eta etikoak eta arduratsuak.
- ✓ **Puntuaziorik altuena irisgarriak** izateak lortu du.
- ✓ **Lau elementuak era nahiko paretsuan baloratu dituzte.**

ONDORIO NAGUSIAK

Gazteen pertzepzioak
neurtzeko galdetegiaren
emaitzak





- ✓ **Genero-estereotipo tradizionalek gazteen interesetan eragina dute:** neskek gai ezberdin askotan dute interes handia eta mutilak aldiz kirolean eta zientzia eta teknologian zentratzen dira.
- ✓ **Ikasgaiekiko interes-maila baxua** da oro har. **Mutilek teknologian (6,60) eta informatikan (6,48) interes handia dute; neskek, aldiz, biologian (5,42) dute** interesik handiena.
- ✓ **Gazte gehienek ez dute eskualdeko industria ezagutzen eta eskualdeko industrian lan egiteak ez die bereziki erakartzen.** Halere, badira eskualdeko industria eta lana gauza positiboekin lotzen duten hainbat gazte, neskak zein mutilak.



- ✓ **Inguruko industriako STEM profesionalen bizimoduak ez ditu gazteak bereziki erakartzen.**
- ✓ **STEM profesionalak pertsona argiak, langileak, jakintsuak eta jakinguratsuak** direla uste dute gazteek. **Ikasle onak deskribatzeko** ohiko adjektiboak.
- ✓ **Genero-estereotipoek indarra dute baita etorkizuneko lanbideak hautatzerakoan ere.** Mutilek kirola eta ingeniaria edo asmatzailea hautatzen dute gehien bat; eta neskek, ordea, enpresa edo osasun zientziei lotutako gaiak.
- ✓ Etorkizunean STEM arloan lan egiteari dagokionez, **neskek eta mutilek gaitasun-maila berdintsua hautematen** dute; baina **mutilek gehiago ikusten dute beren burua sektore horretan lanean.**